



Esp.kodea: 2019PHEL0017
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2019ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: web diseñatzailea

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
Web diseñatzailea	Web guneari eta App-ari etekina ateratzeko proiektua.	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille moduan izena emanda dauden pertsona langabeak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu aurreko deialdietan kontratatuta izan diren pertsonak, hautagai libreak ez badaude behintzat. Baldintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.
- Titulua: goi batxilerra, LH II edo baliokidea.
- Euskara: 3 HE edo baliokidea egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez).
- Lanbide enplegua sustatzeko deitutako laguntza deialdiko baldintzak betetzea (EHAA 2019/05/31). Horren arabera, hautagaiak kolektibo hauetako batekoak izan behar dira:
 - 35 urtetik beherakoak,
 - 45 urtetik gorakoak, baldin eta enplegu-eskatzaille gisa kontratatu aurretiko 180 egun eman badute,
 - 55 urtetik gorako pertsonak,
 - luzaroko langabeak,
 - gizarte-bazterketa jasatzeko arriskua duten pertsonak.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituen baloratuaz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:



Esp.kodea: 2019PHEL0017
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2019ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: web diseñatzailea

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Pertsonal saileko administrari bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**

- Web orrien edo aplikazioen diseinua edota kudeaketako ikastaroak: gehienez 10 puntu.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

- **Probak**

- *Praktikoa:* 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
- *Elkarrizketa:* 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .